



3 PSE-EE

“EAJ, Bildu eta LOHP garapena oztopatzen”

Jesus Zaballosek kudeaketa falta egotzi zien EAJ, Bildu eta LOHP-i. Bere esanetan Lasarte-Oriaren garapena oztopatzen ari dira. EAJko Estitxu Alkortaren agerraldiak bereziki harritu dituela azaldu zuen PSE-EEko ordezkariak asteartean egindako agerraldian. EAJko zinegotziak orain bi aste Okendoko garajeengatik esandakoa bere taldetik bi urte daramatzatela esaten leporatu zien.

4-5 BURUNTZALDEA

Hurrengo pausoa, gidabaimenaren atal praktikoa euskaraz

Andoaingo Bengoetxea Autoeskola 60. hamarkadan jarri zen martxan. Villabonan ere badu egoitza. Urte hauetan guztietan sektorea asko aldatu dela dio Joxean Bengoetxeak autoeskolako jabeak eta Gipuzkoako Autoeskolaren Elkartearen presidentek. Bengoetxea Autoeskolaren garai berrietara egokitzeko joan dira eta 2010etik gidabaimenaren alde teorikoa euskaraz ateratzeko prestakuntza eskaintzen dute, Buruntzaldeko gainerako autoeskoletan batera. Hurrengo pausoa: praktikoa euskaraz.



Ostegunero Okendo plazan akanpatuko dute Atsobakarreko langileek protesta modura.

Atsobakar greban

Lan hitzarmena sinatzea eskatzen diote Clece enpresari

Uztailean bukatzen da Gipuzkoako Zahar egoitzen lan hitzarmena eta hau sinatzea eskatzen diote langileek Cleceri. Atsobakarreko langileek ELAk deitutako greba mugagabearekin bat egin dute “lan eskubideen alde”. Estatuko hitzarmena ezarri nahi zaiela eta honek soldata murrizketa, lan orduak igotzea eta lan postuen galera suposatuko duela salatzen dute.

baina gureari dirua besterik ez zaio axola. Ez dago langileen alde ezer egiteko prest”.

Estatuko hitzarmena ezarriko balitz, “langileen soldatetan hilean 400 euroko jaitsiera egongo litzateke, urtean 200 ordu gehiago lan egin beharko litzateke eta kaleratzeak ere egongo liriteke”.

Lasarte-Oriako udalarekin bilera egin dute langileek baina “udalak dio ezin duela ezer egin. Ez da egia, berak sinatu zuen kontratuaren luzapena Clecerekin eta ondo zekien langileekin arazoak zaudela”.

Hau dela eta mobilizazioekin jarraituko dutela jakitera eman dute.

Mobilizazioak

Egunero kontzentrazioak egingo dituzte zahar egoitza ondo autobusa geltokian 11:15ean eta 18:15ean. Asteazkenetan euren aldarriak udaletxe aurrera eramango dituzte 11:00etatik ordu erdiko kontzentrazioa eginez eta ondoren manifestazioa egingo dute. Ostegunetan berri, egun osoan Okendo plazan egongo dira “akanpandan”.

Atzo egin zuten lehenengo eta sinadura bilketa ere eginen ari dira. Langileek herri-tarrei elkartasuna azaltzea animatu zituzten “sinatzera gerturatzea, gure aitona-amonak zerbiztu hobereana merezi dutela defendatzen ari gara”.

Atsobakar egoitzako langileak greban daude Clece enpresak lan hitzarmena sinatzeko. Ana Garcia langilearen hitzetan, Gipuzkoako zahar egoitzen lan hitzarmena uztailean amaitzen da eta sinatu ezean, estatuko hitzarmena ezarriko zaie. “Estatuko soldatekin hemen ez dugu ezer egiten”.

Herriko zahar egoitzako langileek salatzen dute beste enpresa batzuek euren langileen eskubideak errespetatu eta akordioetara iritsi direla hain zuzen, Estatuko lan hitzarmena ezartzea suposatzen duena euren langileek ez pairatzeko “Aldundiaren proposamena ona da eta enpresa askok bat egin dute honekin



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra

Goi-mailako
Erdi-mailako
**HEZIKETA
ZIKLOAK**

Mekanika

Elektrizitatea

Administrazioa

Energia eta ura
Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Neure kabuz



Jone M. Hernandez

Ikusten ez den hori

Badira giza jarduera batzuk espektatiba asko pizten dituztenak, milaka pertsona biltzeko gaitasuna dutenak, dirua barra-barra mugitzen dutenak, teleberrien arreta bereganatzen dutenak, egunkariko titularretan nabarmentzen direnak. Boterea, prestigioa, dirua, sinesmenak, identitatea..., bezalako elementuak daude jarduera horien erdigunean, abiapuntuan. Egun, kirolak (gurean, justua izateko, gizonezkoen futbolak bakarrik) garai batean erlijioak edota politikak jende andana mobilizatzeko zuten gaitasuna bereganatu du. Horrekin batera, musika edo zineko izen gutxi batzuk. Horra hor gure arteko protagonistak, nahiz eta, distira laburreko izarak izan.

Badira, aldiz, beste giza jarduera batzuk beti bigarren plano batean geratzen direnak. Telebistarentzako ikusezin mantentzen dira. Oso gutxitan ageri dira prentsako titularretan, horrekin lotutako estatistikaren bat iragartzeko ez bada. Halere, etxean bertan edota etxetik atera bezain pronto sumatzen ditugu: egunerokotasunaren parte dira. Eguneror. Eguraldia edozein izanda ere, urtaro guztietan. Eta ez da pertsona talde txiki baten kontua. Pertsona oro dago une batean edo bestean inplikatur. Zaintzaz ari gara. Ezinbestekoa. Ez bakarrik haurrak, adinduak edota gaixo daudenentzat. Denentzat. Baina zaintzaileek ez dituzte ez sari, ez aitortza berezirik jasotzen, ia bizitza osoa horretan ematen badute ere (emakume asko eta asko adibidez). Egun, instanteez osatutako gizartea dugu. Eta zaintzak bizitza oso bat hartzen du. Bizitza osoa ikusezin.

Zorion agurrak



Eider

Hamar musutxo handi-handi familiaren partetik.



Javi eta Jose

Zorionak bikote! Elkarrekin ospatzeko desiatzen gaude!



Eider

Gure txikia heldu bihurtu zaigu! Zorionak famili guztiaren partetik. Eta gurasoei ere zorionak 21. urteurrenagatik



Naroa

Zorionak sorgintxo zure 8. urtebetetzean, ondo pasa eta muxu pilo bat Haizea, Andrea eta sendiaren partez.



Eneko

Zorionak printseso!!! Lau muxu-goxo familiaren partetik.



Ander eta Aimar

Zorionak famili guztiaren partetik!!!



Eneko

Zorionak txapeldun! Handitzen handitzen zazpi urte ya! Muxu erraldoia aita, ama eta Aritzaren partetik



Jose Luis

Zorionak zure urtebetetzean! muxu handi bat familiaren partetik, eta oso ondo pasa zure egunean.



Nerea

Zorionak zure familiaren partez, mila muxu zure egunean! Ondo pasa



Enaut

Zorionak txikote, 10 muxu erraldoi Oier aiton-amona eta familia guztiaren partetik. Txintxo portatu!!!!!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisukidea bilatzen dut, pisua konpartitzeko. Lasarte-Oriako zentroan dago, handia eta argitsua da eta interesa duena 647884278ra deitu dezake.

Salerosketak

• Furgoneta salgai. Mercedes Vito bat 4000 eurotan. Ohea du. Harremanetarako zenbakia, 630 032 779.

Lan-eskariak

• Lan bila nabil, interna edo orduka lan egingo

nuke. Harremanetarako, 649 907 548.

Pertsona bat eskaintzen da adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko. Harremanetarako, 638 372 872 / 943 507 952

• Emakumea eskaintzen da goizetan zortzi ordu lan egiteko. Sukaldean laguntzaile modura, garbitzaile edo pertsona adinduak zaintzeko prest. Harremanetarako, 633 750 443.

• Haurrak edota pertsona adinduak zaintzen lan egingo nuke. Orduka ere bai. Harremanetarako, 696 27 96 25

• Neska arduratsua orduka edo interna moduan lan egiteko prest. 663 692 672.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Hugo Tejero Noe, maiatzak 17an.
- Josu Martin Manterola, maiatzak 15ean.

Heriotzak

- Manuel Alberdi Ariztimuño, maiatzaren 20an, 91 urte zituela.
- Matias Urruzola Sarasola, maiatzaren 20an, 79 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 24 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 25 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 26 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 27 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astearta, 28 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 29 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 30 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Ostirala, 31 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 1 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Igandea, 2 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astelehena, 3 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astearta, 4 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 5 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Osteguna, 6 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I., Maider Azurmendi, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Murba, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

PSE-EE

Kudeaketa falta

Bildu, LOHP eta EAJri kudeaketa falta egotzi die PSE-EEK

EAJko Estixu Alkortaren agerraldiak harritu dituela azaldu zuen Jesus Zaballos PSE-EEKo ordezkariak asteartean egindako agerraldian. EAJko zinegotziak orain bi aste Okendoko garajeengatik esandakoa bere taldeak "ia bi urte daramatzagu gauza bera esaten".



Jesus Zaballos asteartean egin zuen agerraldia.

Maider AZURMENDI

Estixu Alkortak, Ogasun eta Ondare batzorde buruak egindako adierazpenetan Okendo eta Michelingo garajeen egoeratik kezka azaldu zuen. Adierazpenek PSE-EE-n harridura sortu dutela esan zuen Jesus Zaballosek.

Sozialistak leporatu dio "berak ez du ezer egin hau konpontzeko. Okendoko enpleguak aurkeztu zituela adierazi zigun batzordean eta eskatu zuen prentsan ez esateko ezer. Orain bera ater da".

Zaballosek hitz gogorrik izan zituen EAJko zinegotziarentzat "askotan leporatu dit gauzak testuingurutik ateratzen ditudala baina bere ezjakintasuna ausarta da eta berak bai gauzak nola diren ondo jakin gabe hitz egin du".

Alkortak ogasun zinegotzi lanetan bi urte daramatzala azpimarratu zuen Zaballosek "eta badirudi ez duela ezagutza askorik Michelingo garajeen inguruan".

Zaballosek azaldu moduan, Michelingo garajeak ez dira alokairuan eman,

hauek eskuratzeko herritarrek udalak finkatutako baldintzak onartu behar dituztelako, kontzesio administratiiboan saltzen dira. Zaballosen iritziz salmenta "poliki doa jendeak hauek erosteko zalantzak dituelako, aparkalekuaren jabetza ez delako beraiena".

Arrazoi hau medio, PSE-EE-ko udal ordezkariak dio ezberdina dela bi aparkalekuaren egoera. "Okendoko aparkalekuak ez alokatzeagatik diru sarrera garrantzitsua galtzen ari da udala eta hori leporatu diogu udal gobernuari hasieratik. Orain, bi urte pasa direnean, Alkorta ateratzen da kezka bera azalduz".

Gainera Michelingo aparkalekuetan dauden ur filtrazioak konpondu behar direla aipatu zuen EAJkoak eta "hauetan eragin zuzena dute Blas de Lezon egin behar diren konponketak" argudiatzen du sozialistak. "Hauek egin arte hezetasuna izango da aparkalekuetan. 2010ean nik aurkeztutako aurrekontuetan lan horiek burutzeko dirua zegoen, 2012an berriz lanak gauzatzeko diru partida bat gorde zen eta ez zen egin,

2013koetan ere islatu da behar hau eta oraindik ez dira lanean hasi. Ez dakit ez ote dute beste urte bat pasatzen utziko euren kudeaketa faltagatik".

Okendon konponketak

Okendoko aparkalekuei dagokionez, "Bilduk hauetan lan batzuk burutu behar direla esan du baina guk udal teknikariei galdetu eta adierazi digute lanak ez direla beharrezkoak". Atzerapena Bilduk eragin duela salatu zuen Zaballosek "gure ustez udal gobernuak ez daki zer egin Udaletxe berriarekin, ez dauka proiekturik, liburutegiaren parte bat eramatea pentsatzen ari da eta gu aurka gaude. Udaletxe berriak zerbitzu administratiiboak eskaini behar ditu".

Azkenik, Bilduren oharren harira "pozten gaitu ikustea behingoz onartzen dutela EAJ eta Plataforma Bildurekin batera ari direla ontzia gidatzen". Hauei esan zien bi urte daramatzatela gobernuaren eta dagoeneko erabakiak hartzeko garaia dela. Herriaren garapena gelditzea leporatu die.

XXV. Dantzari Txiki eguna igandean

Igandean ospatuko da 25. urtez Dantzari Txiki eguna herrian. Erketzek antolatutako ekintzan ohi bezala beste talde batzuek ere hartuko dute parte.

Aurten sei talde izango dira Erketzekin batera, Faltesko Makaia, Urretxuko Lurra D.T., Errenteriako Ereintza D.T., Andoingo Urki dantza taldea eta Lasarte-Oriako Kukuka antzerki eta dantza eskolako txikiak. Antolatzaileek azaldu moduan "25. urteurrena dela eta, Udalak laguntza berezia eman digu eta beste bi talde ekartzera lortu dugu".

Goizean, 11:00etatik aurrera, talde desberdinek herriko



laxko Dantzari Txiki egunean ederki ibili ziren herriko dantzariak.

auzoetatik barrena haien dantzak eskainiko dituzte.

Arratsaldean berriz, kalejira txiki bat eta 17:00etan talde guztien emanaldia izan-

go da Okendo plazan. Eguraldi txarra egingo balu, Michelingo pilotalekuan egingo liriteke ekitaldiak antolatzaileen esanetan.

KULTURA

Kukukaren desfile erraldoia bihar

Kukuka antzerki eta dantza eskolak biharko desfile eta festa erraldoia antolatuko du. 19:00etan hasita desfilea burutuko dute eskolako irakasle eta ikasleek herriko kaleetan barrena eta ondoren Okendo plazan dantzak eskainiko dituzte besteak beste eskolaren ereserkia.

Eskolako ikasle guztiak honetan parte hartzera gonbidatuta daude eta eskolako kamiseta eramatea eskatzen zaie.

GIZARTEA

Langabetuak kontratatzeko laguntzak

Donostialdeko enpresek Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil 2013ko ekainaren 30 arteko epea dute langabeak kontratatzeko dirulaguntzak eskatzeko, hain zuzen ere Eskualdeko Enplegu Planaren baitan kokatzen direnak.

Dirulaguntza hauek eskualdeko enpresa, profesional eta laneratzea sustatzen duten erakundeek eska ditzakete, betiere lanaldi osorako eta gutxienez 6 hilabeteko kontratua eginda Lanbiden lan-eskatzaila gisa izena emanda dauden pertsonari. Dirulaguntzaren zenbatekoa 641,40 eurokoa izango da hila-beteko eta kontratatzen den pertsona bakoitzeko.

Argibide gehiago nahi dituzten enpresa edota profesionalak lehenbailehen zuzendu beharko dira beren udaleko teknikariengana, Lasarte-Oria Dionisio Avila 943 376 179, d.avila@lasarte-oria.org.

DANTZA

Soka dantza entseguak hasi dira

Erketz EDT-k San Juan suan dantzatzeko den soka-dantzako entseguak hasi ditu. Aurten entsegu irekiak asteartean izango dira. Hurrengoak maiatzaren 28an, ekainak 4, 11 eta 18an dira.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokaletan egingo dira guztiak 20:30ean. Erketz EDT-k gonbita egiten die herritarrei honetan parte hartzeko.

FESTAK

San Pedroak iragartzeko kartela hautatu

2013. urteko San Pedro jaietarako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea amaituta, orain herritarrek haien iritzia emateko aukera dute. Aurtengoa, guztira 8 lan aurkeztu dira lehiaketara.

Bozka emateko, bi aukera daude www.lasarteoriasareaen.eu web orrialdearen bidez; eta bestetik, Manuel Lekuona Kultur Etxeko lehenengo solairuan, kafetegian kartel guztiak ere eskigaita egongo dira. Epea maiatzaren 27an amaituko da.

Behin-betiko erabakia Gazteria eta Festak batzordeak hartuko badu ere, bozka guzti hauek kontutan hartuko direla azaldu dute batzordetik. Gazteria eta Festak departamentutik herritar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

DANTZA

Sorgin dantzako entseguak ekainean

Urteroko hitzordua iristear da, San Pedro festetan Sorgin Dantzan parte hartzeko entseguak ekaineko astearte eta ostegunetan burutuko dira Landaberri BHIko patioan.

Lehenengo entsegua ekainaren 4ean izango da 20:00etan. Entseguak irekiak dira eta nahi duten herritar guztiek parte har dezakete bertan. Antolatzaileek herritarrek hauetan parte hartzera gonbidatzen dituzte.

GREBA OROKORRA

Kutxa itxi zuten protesta modura

Astelehen eguerdian herritar talde batek protesta modura Hipodromo kaleko Kutxako bulegoa itxi zuen. Taldeak zabalduko idatziazen arabera Maiatzaren 30eko greba deialdiarekin bat egiteko "arrazoia soberan daudelako" azpimarratzeko egin zuten ekimena.

Eraikuntzako langileen jantziak eta kaskoa soinean, protesta deigarria egin nahi izan zuten. Honekin banketxeek krisi ekonomiko garai honetan aurrera eramaten dituzten politikak eta jarre-ak gogor salatu nahi izan zituzten publiko egindako oharren jasotzen zenez "gure herrietako banketxeak berehala isteko agindua ematen da, honako delituengatik". Besteak beste, Kutxabankek goi karguen "gehiagizko" soldata salatu nahi izan zituzten.



SEMAFORO BERDEA!! - GIDABAIMENA EUSKARAZ

Joxean Bengoetxea Bengoetxea Autoeskola

“Laster izango da aukera praktikoa euskaraz ateratzeko”

Andoingo Bengoetxea Autoeskola 60. hamarkadan jarri zen martxan. Villabonan ere badu egoitza. Urte guzti hauetan asko aldatu dela sektore hau dio Joxean Bengoetxeak autoeskolako jabeak eta Gipuzkoako Autoeskolaren Elkartearen presidentea. Bengoetxea Autoeskolaren, garai berrietara egokitzen joan dira eta 2010etik gidabaimenaren alde teorikoa euskaraz ateratzeko prestakuntza eskaintzen dute, Buruntzaldeko gainerako autoeskolekin batera. Hurrengo pausoa: praktikoa euskaraz.



Joxean Bengoetxea Andoingo Bengoetxea autoeskolan.

Urte hauetan guztietan zer aldatu da batez ere, gidabaimena ateratzeko garaian? Izugarri aldatu da formakuntza. Gidaria askoz ere prestatuagoa dago orain, bai teorikoki bai praktikoki. Kontuan izan behar da, urte hauetan trafikoa ugariatu egin dela. Gero eta kotxe gehiago daude eta kontu handiagoarekin ibili behar da.

Eta formakuntza jasotzeko moduan ere asko aldatu ziren gauzak. Batzuk, gainera, beraien kabuz egitea erabakitzen dute orain, internetez. Bai, hala da. Esaterako, orain, formakuntza intentsiboa ere eskaintzen dugu. Astebeteko iraupena izaten du eta klaseak goize eta arratsalde izaten dira.

Internetari dagokionean, bai, batzuk erabakitzen dute beraien kabuz prestatzea eta testak on line egitea, baina modu horiek ez dira oso fidagarriak nire ustez. Izan ere, testetako galdera batzuk ez dira zuzenak izaten, zalantza argitzea ere ez daukazu zeinek kontsultatu...

Hala ere, normalean, jendeak betiko metodoa erabiltzen du. %20 inguru izango da beste bideak erabiltzen dituenak.

Azterketak egiteko modua ere aldatu egin da, ezta? B. baimena, hau da, kotxe gidabaimenari dagokionean, azterketak 30 galderakoak izaten dira eta 3 akats egin daitezke. Urte askoan, 40 galdera eta 4 akats izan dira.

“Gipuzkoan oraindik herri batzuetan ez dago hain zabaldua euskarazko aukera. Buruntzaldean bai, oso indartsu dago eta Oiartzunen ere bai”

Hori aldatu dezakete berriz. Hori bai, iazko urte bukaeratik DGT Espainiako Trafiko Zuzendaritzak 800 galdera posibleetatik 15.000ra igotzea erabaki zuen, beste neurri batzuen artean, eta horretan ari dira.

Ze neurri gehiago hartu dituzte eta ze helbururekin? Orain galderak desberdin formulatzen dituzte, galderen ordena ere aldatu egin dute eta saiatzen dira ingurukoek ere ez izatea galdera berdinak, ez kopiatzeko. Lehen, galderak eta erantzunak buruz ikasteko aukera zegoen eta pedagogikoki ez zelako on aldatu dute. Edukiak ondo barnertzea nahi dute eta ez azterketa gaititu eta urte gubixira gutzia ahaztea.

Eta papera alde batera utzi eta azterketak ordenagailuz egiten ere hasi dira. Hasiera batean, estatu mailan 5 herrialdetan jarri zen martxan, proba bezala. Gero 20 herrialdetara zabaldu zen. Gipuzkoan 2012ko azaroan

Jakin denez, arazoak izan dira azterketetan euskarazko bertsioekin, baina konponbidea jarri diozue, ezta? Kontua da, Deba garaian izan zirela lehenengoak euskarazko zerbitzua eskaintzen eta autoeskolatako materiala euskaratzen lan handia egin zuten. DGTk material hori erabiltzen zuten azterketetan, baina orain, 15.000 galdera berri horiek sartzearekin itzulpenak gaizki egin dituzte, besteak beste.

Dena dela, Edorta Simon Gipuzkoako Trafikoko Buruarekin bildu ginen berehala eta oso ondo hartu gintuen. Lan handia egiten ari da Madrilen. Euskarazko test guztiak gainbegiratzen dituzte eta gaizki formulatuta daudenak baliogabetu egiten dituzte. Ondo dauden galderak bakarrik hartzen dituzte kontuan. Gainera, baten batek arazoak izan baditu azterketan eta eraklarmatu egin nahi badu, traterara berezia izango du. Euskarazko kasuetan, azterketa erakutsi egiten dute eta gaztelaniazkoetan ez.

Teorikoa pauso handiak eman dira, baina oraindik lortzeko dago praktikoa. Nola dago egoera? Laster izango al da errealtatea?

Alde hori lantzen ere bagabiltza Edorta Simonekin. Aztertzaileri euskarazko formakuntza emateko asmoa azaldu zuen, baina boluntarioa, eta askok ez dute gogo berezirik. Guk ere proposatu genion prest egongo ginatkeela oinarriko hitz batzuk erakusteko azeriazela horiei. Pixkanaka, baina ari gara pausoko ematen. Eskatuz gero, batzuetan izaten da aukera eta batzuk ari dira euskaraz egiten. Izan ere, Gipuzkoan 8 aztertzaila daude eta bik badakite euskaraz. Beste 3 prest azaldu dira oinarriko formakuntza hori jasotzeko. Beraz, ondo doaz gauzak. Laster errealtatea izango da.

“Nik teorikoa gainditu dut, eta euskaraz!”

Aurten ere, Buruntzaldeko udalek Semaforo Berdea! Gidabaimena euskaraz kanpaina jarri dute martxan. Saritu egingo dituzte gidabaimena euskaraz ateratzen dutenak. 11 izango dira saritua eta teorikoa dohainik izango dute; gehienez, 400 euroko kostua izanik.

Kotxe azterketa gaintitu dut!“. Aipamen hori atal praktikoa gaintitzean bakarrik esaten zela dio Joxean Bengoetxeak, “atal teorikoa ez zaio inoiz kasurik egin”. Baina orain bada kalean entzuten den beste esaldi bat: “Nik teorikoa gaintitu dut, eta euskaraz!”. Balio berezi

bat hartzen ari da aukera hori eta datuek ere argi uzten dute. Buruntzaldean gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen kopurua hirukoiztu egin da hiru urtetan: 2010ean 34 lagunek ateratu zuten; 2011n 60 lagunek; eta 2012an 112 lagunek.

Buruntzaldeko 10 autoeskolatan, aukera Buruntzaldeko 10 autoeskolatan dago aukera gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko. Hori horrela, aurten ere, Buruntzaldeko udalek Semaforo Berdea! Gidabaimena euskaraz kanpaina martxan jarri dute eta saritu egingo dituzte eskualdeko autoeskolatan gidabaimena euskaraz ateratzen dutenak. Zozketa bidez, 11 izango dira saritua eta teorikoa dohainik izango dute; gehienez, 400 euroko kostua izanik. Zozketa 2014ko urtarilean egingo da.

Orain, herrikoa emango dira sariak Sari banaketan, aldaketa izango da aurten. Orain arte, autoeskola bakoitzeko sari bat zozketatzen zen eta orain, herrikoa emango dira sariak; herri bakoitzeko dauden autoeskolak adina sari. Astigarragaren kasuan, autoeskolarik ez dago, baina sari bat egongo da.

Beraz, 6 zorro egongo dira eta herriko sailkatuko dira irabazleak. Zorro bakoitzetik autoeskola kopuru adina saritu aterako dira: Hernanitik 3, Lasarte-Oriatik 3, Andoindik 2, eta Usurbil, Urnieta eta Astigarragatik bana. Aldaketaren arrazoiak, honakoak: “Nagusiki, herri batean autoeskolarik ez dagoelako eta beraz, herri horretako saririk gabe geratuko liritekeelako lehengo sistemarekin”, azaldu dute.

Nola izango ote da euskaraz?

Batek baino gehiago euskaraz egin nahi bai, baina zalantza egingo du: agian gaztelaniaz baino zailagoa da, gai izango ote naiz... Joxean Bengoetxearen esanetan, euskaraz ez da zailagoa. “Hitz teknikoak dira ikasi beharrekoak eta gaztelaniaz edo euskaraz, berdin-berdin ezezagunak dira. Euskarazko ikasketak dituztenek ez dute inongo arazorik”, azpimarratu du.

Dena dela, norberak probatzea hobe izaten da eta horretarako aukera eskaintzen dute www.buruntzaldea.org web gunean. Galderak eta erantzunak, informazio orokorra, ikasgai bat euskaraz ikusi eta entzuteko aukera... Gai honi buruzko azalpen guztiak aurkitu daitezke bertan.

Herri bakoitzetik, autoeskola kopuru adina saritu aterako dira: Hernanitik 3, Lasarte-Oriatik 3, Andoindik 2, eta Usurbil, Urnieta eta Astigarragatik bana

GIDABAIMENA MERKEAGO LOR DEZAKEZU!!

Drain

GIDABAIMENA EUSKARAZ!!

BURUNTZALDEAN NON:

Andoain	Juan Bautista Erro 9 Agustin de Letiza 11	943 59 44 06 943 30 06 04
Astigarraga		
Hernani	Latsunba 3 Urbieta 7	943 55 05 34 943 55 34 16
LAGUNAK OTAMENUI	Karobieta 1 Irpezua 1	943 33 14 19 943 55 35 45
Lasarte-Oria	Geltoki 11 Nagusia 5 Ganbo 1	943 37 70 05 943 37 06 92 943 36 22 75
Urnieta	Idiazabal 24-1C	607 61 64 16
Usurbil	Iruru 2	943 37 69 36

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILA GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIEN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA 2013ko urterriaren lehen abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gaintu dutenak hartuko dute parte zozketan.
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UTZEA.

ETA HORI GUTXI BALITZ...

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO AUKEA 11 SARI BURUNTZALDEAN: TEORIKOAREN BALIOA (400 € GHEIENEZ)

HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRIENA!!

EMAN BEREA

gidabaimena EUSKARAZ

DAKIZUNA ERABILI EZ DAKIZUNA IKASTEKO! www.buruntzaldea.org

LABURRAK.-

Alebinen kirol sustapeneko saio berezia

Lasarte-Oriako Udala Kirol Zerbitzuak 2012 - 2013 ikasturtean alebin mailako adinean dauden neska-mutilentzat garatzen ari den kirola sustatzeko kanpaina amaierara iritsi da.

Bihar, maiatzak 25, eguerdiko 12:00etatik aurrera Michelin-girol Guneako Atletismoko Moduluan saio berezia garatuko da eta bertan parte hartzen dutenek ikasturtean zehar ikasitako praktikan jartzeko aukera izango dute.

Parte-hartzaileek kirola egiteko egoki jantzita joan behar dute aipatutako instalazioetara.

Saioan atletismoko zenbait proba egingo dituzte eta kirol materiala, bizikleta, patinak eta kometa zozketatuko dira kurtsuan zehar ekitaldietara maiz joan diren parte-hartzaileen artean.



Alicia Rodriguez hirugarren ultramaratoian

Ostadar SKT-ko Alicia Rodriguezek Cabezón de la Sal-en, Kantabriaren, egiten den "Los 10.000 del Soplao" proban parte hartu zuen maiatzaren 17an eta 18an.

Ultra maratoi honetan 123 km egin behar izan zituen Ali-ciak eta 24ordu eta 24minututan egin zuen ibilbidea, maiatzaren 17an 23:00etan atera eta maiatzaren 18an 23:24ean iritsi zen helmugara.

Bestalde, hainbat izan ziren Donostiako Maratoi erdian eta 10 km. lasterketan parte hartu zuten herritarrek.

Maratoi erdian azkarrena, Raul Gomez Margallo izan zen eta 17. postuan amaitu zuen, 01:12:18 denbora eginez. 10 kilometrotako lasterketan berriz, Raul Tejado Muñoz herritarra 10. izan zen, 00:37:42.

FUTBOLA.-

Ostadarren erronka, mantentzea

Ohorezko erregionalak garaipena edo berdinketa behar du Jubenil eta Infantil Txikiak kopako final aurrekoak dituzte

Ostadar SKT-ko Erregional Ohorezko mailako taldeak partida garrantzitsua du aste-buru honetan, mailan jarraitzea baitu jokoan. Baina ez da zerbait jokoan duen talde bakarra, Jubenil eta Infantil Txiki taldeak kopako txapelketako final erdian baitaude.

Nerea EIZAGIRRE

Mikel Martijak zuzentzen duen Ostadarreko Erregional Ohorezkoak lehengo asteburuan mailan mantentzeko pauso handia eman zuen, Mondragoni 3-1 irabazi zion eta hiru puntu garrantzitsu eskuratu zituen.

Baina aste honetan partida erabakiorra izango dute, Touring-en aurka. Lasarte-Oriako taldeak garaipena edo berdinketa lortu beharko luke mailari eusteko.

Kopa lehia keta

Honetaz gain, Ostadarreko



Ostadar SKT-ko Erregional Ohorezko taldeko mutilek lan ederra egin zuten igandean.

jubenilek eta infantil txikiak kopako final erditara pausoa eman zuten lehengo asteburuan.

Jubenil taldeak Landetxa garaitu zuen 1-0 eta infantil txikiak, berriz, Aloña Mendi taldea irabazi zuen 5 eta 4.

Eta bidean geratu ziren herriko beste hainbat talde.

Texas Lasarteerra taldeko erregionalak agur esan zion azken urteetan bere txapelketa izan denari, Eibartarrak taldearen aurka 2-1 galdu ostean.

Ostadarreko kadeteek penaltietan galdu zuten aurrea. Mariñoren aurkako partida 3-3 berdindua amaitu zen eta Luis Herreroren mutilek

penaltietan ez zuten zortirik izan, bakarra sartu zuten, Mariñoak aldis lau.

Infantil Ohorezkoak berriz, lehen faseko azken jardunaldia izan zuen. Euskaldunari 1-2 irabazi eta bere multzoko 6. postuan amaitu zuen, azken faserako txartela ematen duten postuetatik urrun.

Txapelketak amaitzen

Ostadar SKT-ko I. Erregional taldeak ere denboraldiko azken partida jokatu zuen, baina kasu honetan igoera txapelketakoa. Partida galdu zuen, baina ez zuen ezer jokoan.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 25

Puio, Donostia 10:00etan

Vasconia-Ostadar

2. urteko alebinak, Futbol eskolako

Aritzti Handi, Lazkao, 12:00etan

Lazkao-Ostadar

Infantil Txiki, kopa final erdiak

Michelin, 16:30ean

Ostadar- Sporting de Herrera

I. Jubenil, kopa final erdiak

Fanderia, Errenteria, 18:00etan

Touring-Ostadar

Erregional Ohorezko maila

SASKIBALOA

Larunbata 25

Benta Berri kiroldegia, Donostia, 12:00etan

Añorga -Ostadar SKT

Kadete neskek, partehartzea. Udaberri saria

Kiroldegia, 17:30ean

Landaberri (Txiki) - Bera Bera

Zurriola (Handi)

Infantil neskek, partehartzea. Udaberri saria

PILOTA

Larunbata 25

SAN PEDROKO TXAPELKETA

Loidibarren pilotalekua, 10:30etik aurrera

Benjamin, alebin, infantil eta beterano

mailako partidak.

Hernani, 10:00etan

Hernani-Intza 4 Terdi, nagusiak. Udaberri Saria

Igandea 26

SAN PEDROKO TXAPELKETA

Loidibarren pilotalekua, 10:30etik aurrera

Benjamin, alebin, infantil eta beterano

mailako partidak.

SQUASHA

Ostirala 24 - Astearte 4

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera

PALA

Astelehena 27-Astearte 28

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidibarren pilotalekua, 18:30ak eta

19:30ak

ATLETISMOA

Ostirala 24-Igandea 26

Malaga

LOKE-ko Eneritz Busto eta Idoia

Olasagastik Euskadiko selekzioarekin

parte hartuko dute Erkidego

arteko Espainiako txapelketan.

Larunbata 25

Donostia, 10:00etan eta 16:00etan

LOKEko jubenil eta junior mailako

atletek Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Igandea 26

Zegama, 09:00etan

Herriko hainbat atletek Zegama-

Aizkorri mendi maratoian parte

hartuko dute.

GIMNASTIKA

Larunbata 25

Ibarra, 10:00etan

LOKEko kadete eta jubenil taldeek

Gipuzkoko txapelketako finala dute.

Ibarra, 16:30ean

Lanaberri eta Sasoeta-Zumaburu

ikastetxeko taldeek Udaberri Sariko

bigarren jardunaldia dute.

JUDO

Larunbata 25

Durango, 11:00etan

LOKE-ko Jorge Revuelta infantila

Euskadiko txapelketan izango da.

Hernani, 17:15ean

LOKE-ko benjaminek Topaketa dute.

Igandea 26

Hernani, goiza

LOKE-ko alebinek Gipuzkoako txapelketa dute.

IGERIKETA

Larunbata 25

Durango 10:30ean eta 16:30ean

Buruntzaldea IKT-ko 2. urteko alebi-

nek Euskadiko XXXII. alebinen

Eskolarteko Jokoen parte hartuko

dute.

TRIATLOIA

Larunbata 25

Hondarribi, 15:00etan eta 17:00etan

Herriko hainbat atletek

V. Hondarribiako Triatloio

herrikoian eta Sprint Triatloian

parte hartuko dute.

ERRUGBIA

Larunbata 25

Kontxako hondartza, Donostia, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalai eskolako

infantil, alebin eta benjamin mailako

gazteek topaketa dute.

Ubitarte, Andoain, 11:00etan

Beltzak Ostadar Jalai eskolako

kadeteek erakusketara egingo dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 25

Lazkao, 16:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko kadeteek Gipuzkoako

txapelketa den LVII Hesparru

proban parte hartuko dute.

Zarautz, 16:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako

infantilak Zarautzko saria proban

izango dira.

Igandea 26

Biyak Bat elkarte, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek

Ibardin aldera dute irteera.

Elgoibar, 10:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko jubenilek XXXIII Elgoibarko

Hiria sarian parte hartuko dute

MULTIKIROLA

Larunbata 25

Michelin kirol gunea, 09:30tik 10:30era

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu

ikastetxeko LH3 eta LH4 mailako

benjaminen futbol topaketa dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 26

Segura, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola joko taldeko

emakume, beterano, jubenil eta

infantil mailako jokalariek

Gipuzkoako txapelketa jokatuko

dute.

Agenda

Igandea 26, egun osoa, Lasarte-Oria



Dantzari txikiekin Lasarte-Oria dantzan

Erketz EDT-k XXV. Dantzari Txiki eguna antolatu du. Faltzesko Maikaia dantza taldea, Urretxuko Lurra D.T., Erreterriako Ereintza D.T., Andoaingo Urki D.T. eta Lasarte-Oriako Kukuka antzerki eta dantza eskola eta Erketz txiki taldeek parte hartuko dute honetan. Goizean talde bakoitzak herriko kaleetan bere saioetara eskainiko du. Arratsaldean, 17:00etatik aurrera, ekitaldi nagusia Okendo plazan izango da.

Lasarte-Oria

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 24, 22:30ean

Zarauko Perlak taldeak bere pop-rock eta punk doinuak eskainiko ditu. Talkalve Olatu Talka Donostia 2016 ekimenaren barruko ekintza.

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 24, 23:45ean

Donostiako Kudai eta Etxebarriko Niketz taldeen kontzertua. Euskal Metal eta rocka entzuteko aukera izan-

go da. Sarrera aurretik 5 euro, leihatilan 7 euro.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 24, 20:00etan

Organik dantza antzerki taldeak "Incorpore sano" lana aurkeztuko du. Leihatilan, 6,50 euro eta internet bidez, 5,4 euro.

Antzerki eta dantza

LASARTE-ORIA
Larunbata 25, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolak ohikoa den legez, desfile eta festa

erraldoia antolatu du bere XI. Antzerki eta dantza asteari hasiera ederra emateko. Honetan eskolako ikasle guztiek parte hartuko dute.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Asteartea 7-Ostirala 31

Estudio del Pintor ikasleen olioz egindako margolanak ikusgai izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 24-Asteazkena 05

Brancussi akademiako ikasleen margolanak eta marrazkiak ikusgai izango dira.

Bakarrizketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 31, 22:30ean

Ion Martinez "Txiki"-ren "Mil a zien, baietz parrez lehertu!" umorezko bakarrizketaz gozatzeko aukera izango da. Kultur Kale Zikloko ekintza. Euskaraz. Doan.

Astigarraga

Zinea

MUSIKA ESKOLA
Ostirala 24, 18:00etan

Harold Lloyd antzezleak 1923. urtean grabatutako "Safety Last!" film mutua proiektatuko da Josecho Fernandez de Ortega piano jolearen zuzeneko doinuez lagunduta. Doan.

Usurbil

Aste Kulturala

ZUBIETAKO PILOTALEKUAN
Astelehena 20-Ostirala 24

Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak Aste Kulturala antolatu du. Arratsaldetan, 17:00etatik aurrera, adin guztietarako tailerrak, jolasak, musika, antzerkia, herri kirolak... izango dira. Doan.

Ziklobia

ZUBIETA
Igandea 26, egun osoa

Zubietatik Donostiara Ziklobian. Musika, dantza, jan eta edana, haurrentzat tailerrak, ipuin kontaketa, errebote partidak... Olatu Talka Donostia 2016 ekimena.

Herritarren txokoa

Xumela korua Zarautzera

Xumela koruko kideek gaur arratsaldean Zarautzen saioa dute.

Koruko arduradunek abeslariari jakin arazten diete, autobusa hartzeko ordua aldatu dela. Honela 19:00etan beharrez, 18:30ean aterako da autobusa Tajamarreko errotodatik. Beraz, argi ibili ordu aldaketarekin.

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Maiatza Maria Auxiliadora amabirjinaren hilabetea da eta horregatik Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan bere omenezko meza berezia ospatuko da maiatzaren 26an, igandean, eguerdiko 12:30ean. Meza amaitzean luntx txikia konpartitzeko aukera egongo da.

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan maiatzaren 27an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Wert legearen kontra nago. Zergatik?

Espainiar estatuan dauden hezkuntza sistema desberdinak uniformizatu eta, bide batez, zentralizatzeko saiakera delako, ez dituelako Autonomia Erkidegoen eskumenak errespetatzen eta ez baitu aintzakotzat hartzen hizkuntza aniztasuna. Ez dezagun begi bistatik galdu Euskadik eskumen eskusibo duela hezkuntza arloan. Horregatik, ezinbestekoa da Gernikako estatutuaren 16. artikulua errespetatu exijitzea.

Bestetik, lege-proiektua bera eta bertan aurrekusten dena ez datoz bat Euskadin bizi dugun errealitatearekin. Euskal Autonomia Erkidegoan espainiar estatuan baino askoz datu hobek ditugu eskolaratzeari dagokionez. Eskola porrotaren maila ere askoz baxuagoa da hemen. Zer esanik ez Lanbide Heziketak Euskadin duen mailari dagokionez.

Hizkuntzei dagokionez, Wert ministroak arazoak sortu du arazorik ez zegoen tokian. Eusko Legebiltzarrak aspaldi lortu zuen gai honen inguruko adostasun zabala eta ministroak hankaz gora jartzeko arriskuan jarri du. Hezkuntza arloko lege batek ezin ditu gaztelania ez diren beste hizkuntza ofizialak diskri-

minatu. Euskara ofiziala da gure herrian gaztelaniarekin batera eta legez aitortuta duen maila eta garrantzia errespetatu beharko ditu lege honek edo beste edozeinek. Ezinbestekoa da Euskadiren errealitate soziolinguistikoa eta gure hezkuntza sistemaren planteamendua aintzakotzat hartu eta errespetatzea.

Ebaluazioari dagokionez ere, ez nago ados. Izan ere, ebaluazioek kurrikuluma bera baldintzatzen dute. Proposatzen diren ebaluazioek irakasle zein ikasleak frogatzen dituzte gura jartzen dituzte eta hezkuntza indibidualizatu, eskumen, jarrera eta gaitasunetan oinarritutakoa, kolokan jartzen baitute. Gainera, zailtasun jartzen dituzte irakasleen profesionaltasuna eta horiek urtean zehar egiten dituzten ebaluazioak. Hori gutxi balitz, metodologia berriak abian jartzea eta sormena mugatzen ditu.

Halaber, Wert-en lege-proiektuan proposatzen diren aldaketek eragin zuzena izango dute gure hezkuntza sistema osoan, bai pedagogiarri dagokionez, bai antolakuntzari eta arlo ekonomikoari dagokionez.

Baina, gauza guztien gainetik ados-

tasun sozial eta politikoa faltak kezkatzen nau. Edozein hezkuntza sistemak adostasun zabal bat izan behar du oinarrian, ezegonkortasuna eta jarraitasun falta saihestu eta hobekuntzak sustatu eta sendotzeko. Lege-proiektu honen aurrean adostasuna dago baina ez aldekoa, lege-proiektuaren aurkakoa baizik. Gizartearen gehiengo zabal bat ez dago hezkuntza arlorako egiten den proposamenarekin ados eta hala adierazi du. Oso kezagarria iruditzen zait eta ministroak gogoeta bat egin behar luke honen inguruan. Hautatu duen bideak ez digu ezer onik ekarriko.

Horregatik, legebiltzar-tramitea amaitzen den unean legeak Euskadik dituen eskumenak urratzen badira eta euskal hezkuntza sistemari kalte egiten badio, Jaurilaritzak tinko defendatuko ditu euskal autogobernua bera eta euskal hezkuntza sistema.

Eta bukatzeko, ez nago aldaketek kontra. Ez horixe! Hobera egiten lagunduko diguten aldaketak behar dira. Berritot diot: onerakoak, ez txarrerakoak!

Boris Nogales Benito

Haur eta bertsoz bete da bi aldiz kultur-etxea

Astelehenean, "Gu ere Bertsoan" saioa egin zen; asteazkenean, Bertso Paper Lehiaketako irabazleei sari banaketa

Herriko ikastetxeetako haur eta gaztekoek bi aldiz bete zuten, aurreko astean, Manuel Lekuona kultur etxea, bi bertso saio desberdin ikusteko: astelehen arratsaldean, "Gu ere Bertsoan" Sasoeta eta Landaberri ikastetxeetako ikasleen emanaldia eta, asteazken eguerdian, Lasarte-Oriako XX. Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketaren baitan, Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendiren bertsoaldia. Bi bertsolariak herriko 5. eta 6. mailako ikasleentzat eta DBHkoentzat bereziki kantatu zuten. Gainera, ondoren, saritutako bertso sortak kantatu zituzten egileek.

Jon ALTUNA IZA

Gu ere bertsoan" izena daukan jaialdian kantatu zituzten bertsoak, Landaberri eta Sasoeta-Zuma-

buru eskoletako LH5 eta LH6 mailako haurrek, astelehen arratsaldean, Manuel Lekuona. Ikasturte amaieran egin ohi den emanaldian, beti bezala, gaien aukeraketan denetarik egon



LH5 eta LH6 mailako gaztekoek, astelehen arratsaldean, kantatu zituzten bertsoak. Gaiak denetarioak izan ziren.

zen, udalekuak, musika taldeak edo Korrika, besteak beste.

Hori bai, oholtzara atera ziren, eskolan Unai Muñoarekin bertsolarietza lantzen duten neska mutilak, taldean, bertsoak abestera. "Gu ere bertsoan" Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen egitasman, ehundaka haurrek parte hartzen du herrialde osoan.

Ahozketasuna eta bertsolarietza lantzeko proiektuan ari direnek urtean zehar ikasitakoak jendaurrean praktikan jarri zuten.

Bi egunetara beste hitzordubatzekin batera herriko haur eta gazteek. Asteazken eguerdian, Lasarte-Oriako Bertso Paper Lehiaketako zazpi irabazleek kantatu zituzten euren bertsoak Manuel Lekuona, Udaleko Kultura sailako buru Boris Nogales eta Ttakun elkarteak Mari Karmen Ormazabalaren eskutik sariak jaso eta gero.

Sari banaketa

Aurten, lehen saria Landaberri BHlko Lierni Rekondorentzat izan da, "irrifar politenari"

jarritako lau bertso ederrenatik. Bertso-sorta txintxarri.info web gunean irakur daiteke.

Bestalde, lehen hezkuntzan Landaberriko lehen saria Nahia Arrutik jaso zuen lagunei egindako bi bertsoari esker. Sasoeta ikastetxeko lehen saria, aldiz, laukote batek eraman zuen, "Eroak" taldeko Nahia, Nerea, Nora eta Mikelek, guraso eta irakasleei bertso bana eginda. Eta DBHri dagokion saria, Lasarte-Usurbil Batxilergo Institutuko Aitziber Mendiluzek ikurrina, euskara eta Euskal Herriari buruz idatzitako lau bertsoari esker.

Asteazkenean ere bete egin zen Manuel Lekuona; giro ona eta umorea izan zen nagusi, gainera, sari banaketaren aurretik eta ondoren Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak saioa izan zen. Librean aritu ziren eta hainbat gai jorratu zituzten, gehienak, gaztekoentzako modukoak: Muñoa bertsolari eta ikastetxeetako irakaslearen itxura, irakasleak, gurasoak, ligatze kontuak eta abar.



Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendi, bertsolariak, aurrean; Bertso Paper Lehiaketaren sarituak, atzean; Udaleko, Boris Nogales, eta Ttakuneko, Mari Karmen Ormazabal, atzerago.



NOA A BIDAIAK

GRUPO ALMEIDA VIAJES

Bidai haundietan
espezialista

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA

943373613

noaobidaiak@almeidaviajes.com

Hipodromo Etorbidea, nº12
20160 LASARTE ORIA - GIPUZKOA

EDOZEIN ESKAINITZA HOBETZEN DUGU

UDARAKO AURRE SALMENTA
MAIATZAK 31. ARTE

www.noaobidaiak.almeidaweb.com

*BALDINTZA BERDINETAN. DISPONIBILITATEAREN ARABERA.

Gipuzkoako erakusketarik zabalena 500m²-tan



- Haur kotxeak
- Paseoko aukerak
- Sehaskak
- Tronak
- Autorako aukerak
- Bainerak
- Biberioak
- Osagarriak
-

Easo 51 20006 Donosti • Tel.: 943 470244
Artaleku 3 20300 Irun • Tel.: 943 638223

www.jostamendi.com



Jaio berri eta amek
behar duzuen guztia